

## SARRERA GISA

Sail hau landareen multzo zabalaren (zabalegiaren) hilabete-kari antzeko zerbait izatea nahi nuke. Landareez hitz egin ohi dugunean, begi ezberdin askok egiten du so: baratzainak, perretxikuzaleak, belar-biltzaileak, nekazariak, lorazainak, basazainak, mermeladagileak, mahastzainak, etab.ek. Mundu itxi eta eskusiboen hauek elkartzea zaila bada ere, nolabaiteko

lokarriren bat eman nahi diegu sail honetan.

Hilero satellite, planeta edo izarren “egoerari”, eklipseei, tenporei, ilgora edo beherari eta abarri gainbegiratzuz hasiko gara. Jarraian baratzainen lanen koadroa, “belarren” mundua, lorazantza, hilabete-ari buruzko esaerak eta kontakizunak aztertuko dira, “bitxikeria” deituriko sailaz bukatzeko, non gauza harrigarri ugari ikusiko bait dugu.

## MARTXOA

Martxoan, hogeitamaika egun medio, egunak ordubete eta hogeita minutu irabaziko ditu, gauaren bizkar, noski. Eguzkia martxoaren leian: irten 7,48etan, sartu 19,06etan. Apirilaren leian: irten 6,58etan, sartu 19,39etan.

Martxoak	7,	19,19etan, ilargi berria (ilgora hasi)
"	14,	11,11etan, ilgora
"	20,	16,29etan, <b>UDABERRIA hasi</b> (eguzkia Piscis aroan sartzen da)
"	22,	10,58etan, ilargi bete (ilbehera hasi)
"	30,	11,21etan, ilbehera

Oharra: ordu ofizialak eman ditugu.

	EREIN	LANDATU	UZTA	
<b>BARATZA</b>	<b>Igora</b> * Kalabazina * Leka * Garbantzua * Ilarra * Dilista * Luzokerra * Anguria * Tomatea * Piperra (denak) * Porrua * Meloia * Frantsesporrua * Kuia (“Cabello de Angel” barne) * Alberjinia	<b>Ilbehera</b> * Azalora (udaberrikoa) * Patata goiztiarra * Batata * Errefaua * Azenarioa * Baratxuria (berdetarako) * Ur-berroa * Borraia * Gardua * Buru-aza * Eskarola * Espinaka * Letxua * Zerba * Brusselaza * Aza gorria * Apioa * Arbi-apioa	* Frantsesporruak * Azalora (udaberrikoa) * Porrua (udaberrikoa) * Apioa * Pepinoa (babesean) * Tipula zuria, gorria (tipulinetarako) eta tipulatxa * Aza kizkurra (Milano) * Marrubia (igokariak barne) * Orburua	* Azak – Brusselazak – Kizkurak – Gorriak – Buru-azak * Gardua * Azalorea * Eskarola * Azenarioa * Porrua * Txikoria * Endibia * Ur-berroak * Zerba * Baratxuri berdea * Errefaua
	<b>BELARRAK</b>	* Perrexila * Ezkaia * Erromeroa * Salbia * Belar bedeinkatua * Estragoia * Tipulina * Albahaka * Kuminoa * Kamamila		Neguko loreak: * Bioleta usainduna * Kamelia Hazi eta fruituen artean: * Gorostia * Pirakanta

Baratzako koadroari oharra:

Erein: beti hazia

Landatu:

- \* Landarea
- \* Aldaska (eskejea)

\* Erreboila (bulboa)

\* Begia (baratzuriaren kasuan)

\* Zainak (frantsesporrua kasu)

## FRUTARBOLAK

Hilabete honetan frutarbola gehien zikloa hasten da, lore-begi eta hosto-begiak haziz. Ordurako inausketa erabat amaitua izatea komeni da, hazkunde hori guk nahi dugun eran bidera dadin.

Sagarrondo eta madariondotan *Pikardatua* izeneko gaitza onddohilkari organiko tratatuko dugu, *Landare zorria* balego kontaktu-intsektikari bat B-C egoera fenologikoetan erantsiz.

## ESAERAK

(Julian Alustizaren *Euskal Baserriaren inguruan* liburutik jasoak.)

- \* Andra-Maixa martiko artean uda taktiko eta handik aurrera betiko (Bergara)
- \* Martxo, txartxo, ez ardi eta ez artautxo (Orexa)
- \* Martxo luze, martxo gose (Iturmendi)
- \* Martxoan lantxerra (lainoa) noraino Apirilean elurra haraino (Erronkari)
- \* Martxoko airea gorri, goizero elur berri
- \* Eguzkia ta euria, Martxoaren aldia
- \* Otakak Martxoan lore, ez da faltako eri eta dolore
- \* Otsailak belarra berak ekar eta berak ihar (izoztean) Martxoak belarra harri azpitik zelar Apirilak, larri (zelaia) bete belar (Saldias)
- \* Olo beltzak erran zaun nausiar: erein nazain berant, erein nazain goixtar, Martxoraino ez nauk ikusi behar
- \* Epail lore, ez lore, bai lore (Oiartzun)

## BITXIKERIA

Landareek nola igartzen dute udaberria datorrela?

Gizakiarentzako udaberria, Eguzkia PISCIS konstelazioan sartzen denean hasten da (aurtengoan, martxoaren 20an, 16,29etan). Baina, landareek beren begiak, hostoak eta loreak

ireki ahal izateko, nola igartzen dute udaberria datorrela?

Udaberriaren etorreraz jabetze horretan, batez ere hiru parametro dituzte landareek: tenperatura, argitasuna eta ebapotranspirazioa.

*Tenperatura:*

Hauxe da aldaketarik nabarmenena; 3-4 gradu igotzen bait da. Aldaketa honekin ohizko tenperatura landareen bizitzeko tenperatura minimoaz gain kokatzen da.

Bestalde, igoera honek landare-espezie bakoitzak hurrengo zikloa martxan jartzeko beharrezko duen hotz-orduen kopurua (7 graduz azpitikoak) betetzat jotzen du normalean. Hotz-orduen kopurua osatu denean, landareak negua igaro dela “uste du”.

*Argitasuna:*

Hasieran aipatu bezala, martxoan egunak (eguzkia atera eta sartzen den arteko bitarteak) ordubete eta hoge minutu irabazten ditu.

Landareen energi iturria argia denez, honek ere udaberriko *esnatzeta* bultzatzen du. Neguko erreserbak jan eta berriro bizitzeko aukera somatzen du landareak.

*Ebapotranspirazioa:*

Argitasunak eta beroak hezetasuna jaitsi eta lurrean dagoen ura lurrintzera bultzatzen du. Honek, landarearen zelulak transpiratzen hastera ere bultzatzen ditu, lurretik ura (elikagaiez nahasirik) hartu eta urteko zikloari hasiera emanez.

*Esperientzia batzuk:*

Tulipa-lore oso goiztiarrak lortu nahi direnean, erreboil edo bulboak hozkailura sartzen dira. Hotz-orduen kopurua azkarra osatu eta lehenago ernalduko da, zikloa lehenago osatu eta loreak aurreratu egingo direlarik.

Bazko-lorea (*Euphorbia pulcherrima*) eguberritan eta urrelilia santu guzien egunean normalean baino askoz ere gehiago ordaintzen dira.

Urtebeteko bizitza duten landareetan (hauetan kasu), lorea (gero fruitu-haziak emango dituen) zikloaren amaia da. Bazko-lore eta urreliliaren kasuetan loraldia egun jakin batzuetan lortzeko landareari zikloaren amaierara inguratzen ari dela “jakin erazi” behar diogu. Nola? Argitasuna murriztuz. Praktikan oihal ilun batzuek estaltzen dira egun batzuk lehenago, landareak loreak garatzen dituelarik. ●

Azken oharra:

Irakurleren batek landareei buruz zalantzak balitu, Elhuyar-era jo beza eta egilea saiatuko da hurrengo alean erantzuten.